

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzotar batek eskatu du irristatzearen aurkako produktu bat aplikatzeko Artegietan inguruko kutxatilen estalkietan. Dioenez, pendiz handiko kale bat izanik, garrantzitsua da produktua aplikatzea.	2021eko martxoan, tratamendu irristagaitz bat eman da.
Zerbitzuak	Bizilagun batek dio euri asko egiten duenean, gainezka egiten duela Artegietan 5 eta 7 zenbakien artean dagoen lursailaren kanalizazioak, urak herrestan daramatzen hondarren ondorioz. Aipatzen du, gainezka egitean, ingurua urez betetzeaz gain, harriak eta bestelakoak lagatzen dituela galtzadan.	Mankomunitateko udalerrri bakoitzaren estolderia-sarea urtean behin garbitzen da gutxi gorabehera. 2020. urtean, Artegietako hustubideak ekainaren 12an garbitu ziren, eta, 2021ean, irailean, zehatzago, irailaren 14an.
Zerbitzuak	Pertsona batek kexa jarri du Amaña Wenceslao Orbea kalearekin lotzen duen igogailua beti egoten delako zikin. Haren ustez, kabinak eta sarbideetako hormak astean bi aldiz garbitzea ez da nahikoa, jende askok erabiltzen baitu igogailua, eta, gainera, amaraunak daudela dio. Garbiketa sakona eskatu du eta toki horiek desinfektatu daitezela.	Egun, igogailuak urteko egun guztietan garbitzen dira. Garbiketa-enpresari abisua eman zaio amaraunak kentzeko astean behin.
Zerbitzuak	Auzokide batek esan du bonbilla bat dagoela erreta Wenceslao Orbea kaleko igogailurako sarbidearen inguruan, eta aldatzeko eskatu du.	Igogailuko itxaron-lekuaren argiak 2020ko urrian konpondu ziren.
Zerbitzuak	Kexu da Amaña eta Wenceslao Orbea lotzen dituen igogailuaren inguruan lirdinga dagoelako eta jendea irristatu egiten delako.	Kendu da belarra.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	<p>Amañako 9 zenbakiko etxepekoek salatu dute etxeen ondoan dagoen euste-hormari ura dariola aspalditik, eta egoera horrek hezetasunak sortarazten dituela higiezinan. Diotenez, eurak izan dira sasiak kentzen eta horma txukuntzen ibili direnak, baina dagoeneko ezin dutela egin, eta Udalari hura garbitzea eta goroldioa eta sasiak kentzea eskatzen diote. Gainera, esan dute zomorroak erakartzen dituela, batez ere uda partean.</p>	2021eko apirilean garbitu ziren inguru horretako sastrakak.
Obrak	<p>Asola-Igartzako auzotar batek aparkatzeko soluzioak eskatu ditu Amañarako. Eskatu du Artegieta 5 zenbakiaren ondoan, eskolen parean, dagoen lokal bat egokitzea, auzoari 10 edo 20 aparkaleku-plaza izatea ahalbidetzeko.</p>	Hainbat aukera aztertu dira. Espazioak ez dira oso aprobetxagarriak eta nahiko zailtasuna dute.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

Saila

Laburpena

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Auzo-bilera: Amaña

Saila

Laburpena